

# Zubillagako karreristak

Behin baiño gehixagotan esan dogu antxiñako fotografixiaren sail honetan gerra aurrian Oñatin bizikleta-karreratarako zaletasun haundixa egon zala. Izan be, urte hareittan asko zabaldu zan bizikletia txantxikuarren artian. Batzuk biharrak eragindda heldu otsain; iñoiz pasiurako edo jolaserako be bai, baiña aberats samarrak bakarrik, bizikletia erostia dezente kostaten zalako. Gehixen, jakiña, auzuetako jentiak ebalten eben, tresna egogixa zan-eta, kaleraiño etorteko, edota fabriketara fateko. Ezta ahaztu bihar orduko langille askok herrittik kanpora ziharduala bere zeregiñian, Legazpin, Bergaran eta Mondraguen batez be. Horregatik, erruz ugarittu zan bi txirrinkadun ibilgaillu hori Olabarrieta, Uribarri edo Zubillaga lako auzuetan.

Ibilttiak samurtasuna dakarrenez, aittatu dittugun hiru auzo horreittan agertu xakun gerra aurreko gure karreristarik onentxuenak be: 1920ko hamarkadan, **Nikolas Altzelai** *Aldai* olabarrietarra eta **Benito Aiastui** *Farretxe* zubillagarra; eta 1930ekuan, **Klaudio Leturiaga** *Banastagin* uribarritarra. Baiña, auzuetan nahiz kalian, beste gazte asko be harrapo eben pedalei eragitteko afiziñuak. Egixa esateko, txirrindularixak kontaitten hasi ezkero, Zubillagari emun bihar xako txapela, errpublika aurreko urtietan behintzat. Esate baterako, Farretxekuak ziran, Benitto letxe, bere bi anae karreristak: **Zeferino** eta **Doroteo Aiastui**; Lazkanakokua **Agustin Lizarralde** *Otero*; Arretxekua **Jenaro Billar**; Zubillaga Azpikokua **Lorentzo Letamendi** *Girardengo*; Narbaizenekua **Martin Guridi**; Arotzenekua **Plazido Igartzabal**; eta 1925ian Itziar inguruan bizikleta-istripu batian hil zan **Pedro Agirreurreta** be zubillagarra zan. San Prudentzio aldekuak izan arren, Zubillagara joten euenak be baziran: adibidez, Elorregi Errotako **Jose Mari Aseginolaza** (oñatiarra) eta Barrenako **Pako Altuna** (bergararra).

Horreittako batzuk agiri dira gaurko fotografixan. Ezkerretik eskumara: **Martin Guridi**, Narbaizenekua; **Lorentzo Letamendi**, Zubillaga Azpikokua; **Doroteo Aiastui**, Farretxekua; **Pako Altuna**, San Prudentzioko Barrenakua, ezkondu eta gero Kasablankan bizi izandakua; eta **Plazido Igartzabal**, Arotzenekua. Argazkixa 1925 ingurukua edo gerotxuagokua izan leike. Plazako Estanku Zaharreko **Pablo Ugarte** zanak, hitzaldi baterako aspalditxo idatzi eben Oñatiko kirolaren historixa labur batian, albiste asko itxi oskun garai haretako txirrindularitzaiaren gainian. Ederki etorri xaku gaurko lantxo honetarako.

J. E.

Argazkixa Jesus Mari Letamendiren bidez eskuratu dogu. Eskerrik asko!